

ESPAZIO BAT SORTZETIK PERTSONAIA OSATZERA, MAITE GURRUTXAGA

Irakaslea:

Maite Gurrutxaga, ilustratzailea.



Deskribapena eta helburuak:

Ikastaro honen asmoa pertsonaia bat eraikitzea litzateke. Horretarako, lehenengo saioan espezifikoki sortuko dugun espazio bat oinarri hartuko dugu.

Sortutako espazio horren forma, kolore, objektu, etab.etan jarriko dugu arreta bigarren saioan pertsonaia sortzeko. Saio bakoitzean teknika bat ezagutuko dugu eta praktikan jarriko dugu.

Lehenengo saioa

Espazio bat sortuko dugu. Izan daiteke sukaldea, etxeko gela bat, natura...

Bigarren saioa

Espazio horrek ematen digun informaziotik habiatuta pertsonaia osatuko dugu.

Data-Ordua:

2022ko otsailak 11 eta 18: 11:00 – 13:00.

Hizkuntza:

Euskara.